



Haur eta Gazte Literatura

Bi begi?
Lucie Félix

Irudiak: Lucie Félix.
Itzulpena: Joxemari Sestorain.
Denon artean, 2013

Jolasteko proposamena

LITERATURAREN KONTZEPZIOA gero eta irekiagoa da gaur egun. Istorioak kontatzen jolasetara, elementu ugariaren konbinaketara, formatu eta generoen ugaltzera, eta abarrera pasa gara. Batzuetan liburua objektu moduan nahiko ongi definituta dagoelako onar dezakegu zer den, baina inork esan al dezake liburu bat jostailua ere badenik?

Bi begi?, Denon artean etxeak eskaintzen digun liburu hau, jostailua ere bada, edo jolasteko proposamen bat. Izenburutik bertatik egiten zaigu proposamena; aizu, irakurle maitea, esango al didazu hor ikusten duzun hori bi begi diren... edo zure usteak erdiak baino gehiago diren ustel?

“Zortzi irudi urdin marraztu ditut,” dio egileak ipuinaren hasieran eta horixe bera ageri zaigu orrian. Ondoren “paperezko orria zulatu...” eta horixe egin du orrian, zortzi zulo aurreko irudien antzera. Kontua da hurrengo orrian, zuloen azpitik irudien zatitxo batzuk ikustean, “Eta euria ari du” esaten zaigula; izan ere, euri tanten efektua lortu du egileak.

Ondorengo orrietan nufar batzuk eta urmaela irudikatuko zaigu hainbat elementu, irudi eta zuloren bidez. Eta urmalean “Hara! Begira dauzkat bi begi! Bi begi?” irakur eta ikus dezakegu. Oraingo honetan ere, egileak irakurlearen espektatibekin jolastuz, begi horiek igel arrautzak direla ikusiko dugu.

Hortik aurrera arrautza igel bilakatzeko prozesuaren lekuko izango gara.

Eta, halako batean, liburuan eten bat gertatzen da, eta hasierako prozesuaren antzekoa abiaraziz, beste errealitate bat ikusiko dugu, irudiak, zuloak, espektatibak... eta amaieran hontza ageri zaigu “Hontza dugu, bere begi argiekin, guri zelatan, gau ilunean...” eta hontzaren irudian nor ageri eta hasierako igela! “Kontuz igeltxo! Hontz zelatariak jan zaitzake erraz!”.

Ipuinak, edo jolas liburuak, ezin amaiera txarrik izan; eta “Uf, salbatu naiz! Gure igeltxo gorde-gordeta dago, hontza da hegatu eta nire ipuina bukatu!”.

Komentario hau irakurri duen edonork ikus dezakeen bezala haur txikiekin jolasteko liburuak dugu Denon artean argialetxearen lan hau. Espero duguna, sorpresa, irudi eta zuloen bidezko sorkuntza berriak; horiek guztiak hari mehe batez loturik ageri zaizkigu, igela eta hontzaren aurkikuntzak lotzen duena.

Norbaitek esan dezake literatura aldetik ez dagoela figurarik, elementu literarioak, kontakizuna apalegia dela... eta arrazoia izan dezake; garbi dago liburu honen helburu nagusia ez dela idazkera edo narrazioa, kontakizun sinplearen bidez irakurlearekin jolastea baino; honen espektatibak, irudimena, jolasteko grina erabiliz une atsegina igarotzea baizik. ■

Xabier Etxaniz Erle



ogiaren egia Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

SaiazGetaria
HOTELA

Roke Deuna, 25 • GETARIA
www.siazgetaria.com • Tel.: 943 140 143